

# Abarak



JON TORNER

## Gorputz asaldagarriak

*The Blot.* Tom Neely (2007).  
182 orrialde, zuri-beltzean.  
Interneten: [www.iwilldestroyyou.com](http://www.iwilldestroyyou.com).

TINTA BELTZEKO orbana da komikiari –barkatu, “nobela grafikoari”– izena ematen dion *The blot* delakoa. Ezin negona sortzen duen lainoak bazterrak zikintzen –ezabatzen– ditu, eta kale zein pertsonen barrenak inbaditu.

Zuri-beltzeko istorio mutu honetan ageri diren pertsonaiek 1930-40ko hamarkadetara eramango gaituzte, Popeyeren Olivia gogorarazten diguten figura mehar eta luze, buru borobil eta obalo formako begi beltz horiekin. Hanka, beso eta gorputzen desproporzioak, eta pertsonaiei keinu –hasiera batean– xalok ukitu inuzentea ematen diote komikiari eta, hain justu, horrek guztiak istorioaren garraztasunarekin talka egingo du, lurreratze pasarte gutxi batzuen ostean, orban beltza protagonistaren jabe egiten den momentutik bertatik. Liburuko protagonista, izenik ez duen gizon gaztea, kalera irtengo da



astearte batean (liburuko letra bakarrenetakoek egunari erreferentzia egiteak metaforaren bat ezkututzen duen ez dakigu), eta aurki konturatuko da egun hori ez dela gainerakoen modukoa izango. Orbana jarraika izango du izenik gabeko hirian barrena, eta gauean ez

dio lo egiten utziko. Borrokan arituko dira tai gabe, harik eta orbanak gizon gazteari nortasuna lapurtuko dion arte. Narrazioak tonu surrealista hartuko du, absurdu eta esperpentikoa, sarri asaldagarria.

Kolore oso gutxi erabili du Tom Neely (Texas, AEB, 1975) komikigileak bere aurreneko “nobela grafikoan”, nobela grafiko gehientsuenetan gertatzen den moduan <sup>(1)</sup>. Bukaera aldera soilik ageri dira ukitu gorriberdeak, eszena arras desberdin bi marrazteko. Protagonista bere burua kolpatzen dueneko alde batetik, zeina liburuko eszenarik biolentoena den; eta, bestetik, esperantzaren ikurtzat har daitekeen limoiondo berdearen pasarte. (Trankil, bukaera ez dut deskubritu-eta) ■

<sup>(1)</sup> Zer mania hartzen ari naizen termino horri!

**inguru**  
ABENTURA.COM

info@inguruabentura.com - 635 748 948

Descenso de Cañones, Espeleología, Puenting, Multiaventuras, Despedidas de solter@ y mucho mas...

Arroila Jaitsierak, Espeleología, Zubi saltoa, Multiabenturak, Ezkon aurreko agurrak eta askoz gehiago...